



Txotxongiloen Zentro berria udan hasiko dira eraikitzen

TOLOSA ▶ Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Tolosako Udalak atzo sinatu zuten zentroa egiteko lankidetzaren hitzarmena

ERAIKINA ▶ Sei miloi euro kostatuko da; bost solairutan antzokia, dokumentazio gela eta museoa izango ditu, besteak beste ▶ 2

Irlanda hegoaldean izan dira Alurr taldeko dantzariak bost egunez

IBARRA ▶ Hilaren 15etik 20ra erakustaldi ugari egin zituzten hainbat herritan, «Euskal Herriko kultura zabaldu asmoz» ▶ 4

HITZA



TOLOSA ▶

Gerontologia Zentro berriaren proiektua aurrera doa

Eraikuntza eta kudeaketa lanak esleitu ditu Tolosako Udalak ▶ 3

LIZARTZA ▶

Alondegia eraikuntza pribatizatu nahi du Udalak

Alondegia Bizirik herri plataformak Udalaren jarrera salatu du ▶ 4

TOLOSA ▶

Pertsonen heziketa arloan laguntzeko proiektua martxan

Tolosaldea GM-LH Institutuak 'Tolosaldean Ikasten' aurkeztu du ▶ 3

LEIRE OLABERRIA ▶ PISTAKO TXIRRINDULARIA

«Bizikleta lana ez ezik, zaletasuna ere bada niretzat; horra nire sekretua»

Ikaztegiatarra EHko pistako txirrindularitzaren ikurra da ▶ 6-7



TOLOSA MOTOR, S.A.
San Esteban auzoa, 14-A
20400 Tolosa (Gipuzkoa)
Tel.: 943 65 03 37 Faxe: 943 65 29 38
tolosa@tolosa_redpeugeot.com

Expert berria



KULTURA ▶

Udan hasiko dira eraikitzen Txotxongiloen Zentro berria

Atzo sinatu zuten Tolosako Udaleko alkateak eta Gonzalez Txabarri Ahaldun Nagusiak, lankidetzaz hitzarmena



Joxe Juan Gonzalez Txabarri eta Jokin Bildarratz, atzo Tolosako udaletxean. ASIER IMAZ

ESTI EZEIZA

Txotxongiloen Zentro iraunkorra egiteko lankidetzaz hitzarmen sinatu zuten atzo Gipuzkoako Foru Aldundiko Joxe Joan Gonzalez Txabarri Gipuzkoako Ahaldun Nagusiak eta Jokin Bildarratz Tolosako Udaleko alkateak. Egoitza hau Euskal Herria plazan kokatuko da, Justizia Jauregi ohiean. Aurrekontuari dagokionean, sei milioi euro kostatuko da proiektua, hau Tolosako Udala, Sustapen ministeritza, Gipuzkoako Foru Aldundia, Euskal Gobernu eta Kutzaren artean ordainduko dute. Lehendabiziko biek sinatu dute dagoeneko hitzarmena, eta atzokoarekin hirugarrena egin dute.

Aurreikuspenen arabera, uda honetan hasiko dira eraikitzen zentrua, eta 2009ko udarako prest egongo da. Hala ere, Tolosako Ekinbide Etxeko

esanetan, hortik aurrera ere, orain arteko dinamikarekin jarraituz, Txotxongiloen jaialdia eskenatoki ezberdinetan egingo da. Miguel Arretzek azaldu zuenez, «aldatuko dena, agian, egitaraua izango da, urtean zehar ere ikuskizun ezberdin ugari ikusi ahal izango baitira». Hala, antzerki talde hobekak edo berezituak ekarriko litzukete egun horietan.

Zentroak bost solairu izango ditu, eta 3.600 metro karratu. Bertan kokatuko dira, antzokia, museoa eta dokumentazio gela. Antzokian 250 ikusle inguru sartuko dira, hau da, «txotxongiloen ikuskizunetarako egokia izango da». Arretxeren esanetan, zaila baita 500 edo 600 pertsona biltzea horrelako ikuskizun batean. Horregatik Leidor antzokia kasu gehienetan «handiegi geratzen zen, eta zaila zen antolatzailentzat hau betetzea».

Tolosako Ekinbide Etxea izan da proiektuaren bultzatzaile nagusia, eta hor barnean, Miguel Arretxe eta Idoia Otegi, Titirijako zuzendariak. Hala, elkartearen egoitza ere Euskal Herria plazan kokatuko da lanak amaitzen direnean.

MIGUEL ARRETXE ▶ TITIRIJAI JAIALDIKO ZUZENDARIA ETA UNIMA-KO LEHENDAKARIA

«Izugarrizkoa izango da Tolosako Txotxongiloen zentroa»

Miguel Arretxe, Idoia Otegiarekin batera Titirijai, txotxongiloen jaialdi zuzendaria da. Urte ugari daramatza mundu honetan, eta azkenik, duela urte asko sortutako bere ametsa bete ahal izateko du laster.

Nondik sortu zen Txotxongiloen Nazioarteko Zentroa egitearen ideia?

Zenbait urteren ondoren, ikusita txotxongiloek Tolosan sortzen zuten ikusmina. Pentsatzen genuen pena zela urtean zehar bederatzigun egunetan bakarrik gozatu ahal izatea hauek.

Zergatik orain arte ez da aurrera eraman egitasmoa?

Denbora eta esfortzu handia kostatu zaigu hau egin ahal izate. Bestalde, zuk kontrolatu ezin dituzun zenbait baldintza eman behar dira hau gauzatu ahal izateko. Proiektua beti begi onez ikusi izan da, baina agian, urrutik ikusten zen. Egun berriz, instituzio guztiek ongi erantzun dute eta aurrera jarraitzeko baldintzak ematen dira.

Jaialdiak egun duen arrakastak ere eragina izan al du?

Denbora ez da alferrik igarotzen, eta hau izen ona irabaziz joan da, bai eskualdean, eta baita mundu guztian zehar ere. Honek, nola ez, eragina izan du.

Hornikuntza aldetik, nola banatuta egongo da zentroa?

Izugarrizkoa izango da Txotxongiloen Zentroa. Aktibitate garrantzitsuena txotxongiloena izango da, hala ere, beste zenbait ekintza kultural ere gauzatu ahal izango dira antzokian. Hori dela eta, txotxongiloen ikuskizunetarako egokia den antzoki bat izango du. Bestalde, ohiko hornikuntzaz gain, teknologia berriak ere lekua izango dute bertan. Honez gain, erakusketa bat ere izango da, kultura, garai eta lurralde ezberdinetako txotxongiloak bilduko direlarik bertan. Azkenik, tailerrak ere izango dira, artistek emango dituzte, bertan nahiz hara joan gabe, eskoletan garatzeko, internet bidez.



E. EZEIZA

Tolosakoa diseinatzeko garaian, zein zentro hartu duzue erreferentziatzat?

Horrelako oso zentro gutxi daude. Ezagutzen ditugunetak, erreferentzia gisa hartu ditugunak Atlantakoa (AEB) eta Taipeikoa (Taiwan) dira. Ezagutzen ditugun gainontzekoak espezializatuagoak dira. Txotxongiloetan bi alderdi daude, artista eta ikuslea. Hauek lehendabizikoan zentratzen dira batik bat, gu berriz, publikoan. **Nor arduratuko da zentroaren kudeaketaz?**

Egoitzaren ideia eta proiektuaren garapena TEEn eskutik etorri da batik bat. Horrez gain, gaiaz gehien ulertzen duena ere, bera da, horregatik hitzartuta dago bera izango dela arduraduna. Honekin lotuta, egoitzaren gelak eta antzokia ere kudeatu beharko dituzte, beste gauza batzuetarako erabili ahal izateko.

Aurten 25 urte beteko ditu Titirijai jaialdiak, ospakizun bereziren bat prestatu al duzue? 2002. urtean, 20 urte betetzean, zerbait berezia egin nahi

izan genuen, antzerki talde bereziak ekarriaz. Aurten antzeko zerbait egingo dugu. Bestalde, hitzartuta dago, orain arte arrakasta gehien izan duen *Vietnamgo txotxongiloak ur gainera* ikuskizuna berriro ere etorriko dela. Bestetik, 25 urte hauen inguruko liburu bat argitaratu nahi dugu.

Joan den urtean txotxongilo iberiarrari ireki zenituen lehioa, aurten nori?

Txekiar Errepublikara zuzenduko dugu. Erakusketako pieza gehienak Moraviako museoak izango dira, eta honez gain, lurralde horretako bost talde etorriko dira.

Euskal Herriko txotxongiloek berezitasunik ba al dute?

Hemengoak itxuraz ez dute berezitasun handiegirik, Europa hegoaldeko gainontzekoen antzekoak dira. Bereizgarri duten ezaugarria istorioena da, euskal tradizioako kontakizunak antzertzen baituzte.

Joan den urteko jaialdiarekin batera, UNIMArekin kontseilua ospatu zen, eta bertan Txotxongiloen entziklopedia onartu zen. Zertan da proiektua?

Argialetxearekin hitz egiten ari gara, hitzartuta dago eta laster sinatuko dugu akordioa. Beraz, aurrirakopenen arabera, datorren urteko kontseilurako amaitu egongo da.

GIZARTEA ▶

Gerontologiko berriaren proiektua aurrera doa

Zentro berriaren eraikuntza eta kudeaketa lanak esleitu ditu Tolosako Udalak

ERREDAKZIOA

Tolosako Udaleko Gobernu Batzak herriko Gerontologia Zentro berriaren eraikuntza eta kudeaketa lanak esleitu zizkion herenegun San Cosme eta San Damian klinikak eta Arkaitza Sustatzaileak sortutako elkarteari.

Zentroa, Alhondiga inguruan, Udalak 50 urtetarako utzitako lur-sailean egingo da. Berehala hasiko dira eraiketa lanak eta baita eraikuntzerako argia eta ura jartzekoak ere, eta zola egokitu ondoren, Gerontologi Zentro berriaren eraikuntza lanei emango zaie hasiera. Eraikuntza honetan 15 milioi euro inguruko inbertsioa egingo dute zentro hau aurrera eramango duten enpresek.

Gerontologia Zentroak mendekotasunean bizi diren 128 lagunentzako tokia babestutako 20 etxebizitza eta 60 lagunentzako eguneko zentroa bilduko ditu. Alde bi izango ditu eraikinak. Hegoaldekoak, beheko solairua eta mendekotasunak daukaten lagunentzako beste 4 solairu izango ditu. Bigarrenak, iparraldekoak, beheko solairua eta beste 3 solairu izango ditu.

Horretaz gain, babestutako etxebizitzaren gunean, beheko solairua eta beste 5 solairu izango dira.

Zentroak banakako eta binakako logelak izango ditu, eta hauekako bakoitzak ohea, oheburua, gau-mahaia, armairua eta gune libre edo banakako mahaia izango ditu. Urrimen kognitiboak daukaten egotziarrentzako logeletan apalategiak jarriko dituzte armairuaren ordean.

Beheko solairuan Eguneko Zentroa, mendekotasunak daukaten lagunentzako egotzako zerbitzuak, babestutako etxebizitzetako zerbitzuak eta erabilera mistoa izango duen kafetegi bat egongo dira. Honetaz gain Gerontologia Zentroko ondorengo zerbitzu bateratuak izango dira: ikuztegia, ile-apaindegia, aldagelak, podologia, denda txiki bat eta tanatorioa.

500 aparkaleku

Proiektu honen baitan, lurpeko bi solairutan banaturik, 500 aparkaleku bilduko dituen 13.000 metro karratutako azalera izango duen parking bat egitea ere aurreikusiten dute.

demokratikoa egiteko sortu zen Nazio Etabaida Gunearen barruko ekimen bat da. eta bere helburua «hezkuntzari buruzko eztabaida soziala bultzatzea» da. Honetaz gain, gune honetan adostutako Nazio Planean, lehentasunezko hainbat egitasmo zehaztu ziren hezkuntza arloan: Euskal Curriculuma osatzea, Euskal Unibertsitatearen sorrera sustatzea, eskolak euskalduntzeko ildoak babestea, eta azkenik Euskal Hezkuntza Sistema Nazionalaren inguruko eztabaida gauzatzea.

HEZKUNTZA ▶

Hezkuntza Akordioa aurkeztuko dute gaur

Hitzaldian euskal hezkuntzaren inguruan mintzatuko dira 18:30ean, Kultur Etxean

ERREDAKZIOA

Gaur, 18:30ean, Kultur Etxean Hezkuntza Akordioaren berri emateko txostenaren aurkezpene egingo dute ikastola publiko nahiz pribatu guztietan euskararen normalizazioa eta euskal hezkuntza bermatzea dira txosten honen helburuak. Hitzaldi honen bitartez eztabaida bultzatu nahi dute, eta aldi berean, ekarpenak jaso.

Hezkuntza Akordioa 2003. urtean euskal herritarren arteko eztabaida nazional eta

HEZKUNTZA ▶

‘Tolosaldean Ikasten’ proiektua aurkeztu dute institutuan

Gemma Zelaiak, proiektuko bitartekariak, azaldu duen bezala, «pertsonei heziketa arloan laguntzea du helburu»



Tolosaldean Ikasten proiektuaren aurkezpeneko une bat, atzo. N. GARZIA

NAIARA GARZIA

Atzo *Tolosaldea ikasten* proiektuaren aurkezpena egin zuten Tolosaldea GM-LH Institutuan. Bertan proiektua aurkezteaz gain, webgunearen funtzionamendua ere azaldu zuten.

Proiektua Tolosaldeaz gain Debagoienan ere sustatuko dute. Hori dela eta, aurkezpena aldi berean egin zen, bai Tolosan, bai eta Bergaran ere. Horretarako bideokonferentzia erabili zuten. Tolosaldea GM-LH Institutuko zuzendariak, Jesus Arregi eta Bergarako institutuko zuzendariak, Inazio Larrañagak, egin zuten aurrena proiektuaren aurkezpena, batek Tolosatik, besteak Bergararik. Ondoren Bergarako bitartekari den Miren Errastik bere lana azaldu zuen eta baita webgunearen egileek ere.

Tolosaldean ikasten: Bizitza Osoan Zeharreko Ikaskuntza (BOZI) delakoaren helburua, Gemma Zelaia bitartekariak

azaldu zuen bezala, «pertsonei heziketa arloan laguntzea da, hau da, zerbitzu hau eskualdeko pertsonen ikaskuntza aurrerak bideratu eta orientazioa eskaintzeko da». Baina helburu praktiko honetaz gain, bada beste helburu orokorrago bat: «pertsonek eguneroko ikasketaren bidez, beren bizi kalitatea hobetzea, norberaren buruan sinestea, autoestimua izatea eta ilusioa izatea».

Bulegoa, institutuan

Bitartekariaren kokagunea institutuko bulego batean izanen da, baina Jesus Arregi zuzendariak azaldu duenez, «hemen kokatuta dago, baina ez da institutuko zerbitzua».

Herritarrek *Bizitza Osoan Zeharreko Ikaskuntza*-ren inguruan sentsibilizazioa, eskualdeko prestakuntza eskaintza eskuragarri jartzea, ikasketa-

ibilbide pertsonalizatua zehazten laguntzea dira, besteak beste, zerbitzu honen helburu zehatzak.

Honetaz gain, *Tolosaldean Ikasten*-BOZiren webgunea aurkeztu zuten atzo: www.ikastn.com. Bertan nahiz garapen pertsonalari, nahiz lan munduratzeari begira, eskualde eta herrialde mailan eskaintzen den formakuntza osoaren informazioa aurkitu daiteke. «Webgunea oso argia da, erabiltzaileak ez du oztoporik bilatuko nabigatzeko orduan», azaldu zuen Zelaia.

Zerbitzu honen berriztapen artean, sms bidezko zerbitzua dago. Honela jakin beharreneko informazio guztia sms bitartez iritsiko zaio interesatuta dagoenari. Modu honetan, maiztasun batekin internetera sartzeko aukerarik ez dutenak ere informatuta egon ahalko dira.

iragarki laburrak ▶

SALGAI

Trikitixa. Trikitixa berria saltzen dut. Interesatuak deitu honako telefono zenbakira: 669 67 36 49.

LANA

Gidariak. Erakunde publikoetarako gidariak behar dira. Interesatuak

deitu 943 44 48 66 telefono zenbakira.

Harreragileak. Udalekxetarako 943 44 48 66 telefono zenbakira.

Sukaldaria. Villabonan sukaldaria behar da. Informazio gehiago 943 69 19 33 telefono zenbakian.

▶ TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Zeuk idatzi. Izan zaitez zu ere kazetari eta eman zure inguruko albisten berri gure webgunean.

IBARRA ▶ KULTURA



Hilaren 17an, St Patrik's egunean Irlanda hegoaldeko Midleton herrian Alurr dantza taldekoak. HITZA

Irlandan geurea zabaltzen

Euskal Herriko dantza eta kultura ordezkatzuz, Irlanda hegoaldean izan dira Alurr dantza taldekoak

ASIER IMAZ

Bost egun pasa dituzte Irlanda hegoaldean eta bost egun beharko litzukete han bizitako guztia kontatzeko. Beraiekin hitzegitean sortzen den sentsazioa da hori.

Hilaren 15ean irten eta 20an itzuli ziren dantza bidaiatik. Irlandar musika eta dantza bertan eta atzerrian bultzatzen duen talde batek gonbidaturik, Alurreko 26 partaide Midletonera heldu ziren ostegun gauean, ongiatorria eta guzti jaso zuten, artista haundien moduan zeharbidetuta eta guzti. Corkeko konterrian dagoen herrian kokatu zuten oinarriko kanpamendua. Ondorengo egunetan autobusak alde batetik bestera eraman baitzite-

tuen, beti ere euskal dantza eta orohar Euskal Herriko kultura zabaltzeko asmoz.

Egitaruarekin hurrengo egunean hasi ziren gogor, «ostiral goizean 4 eskola pasa genituen, 15 minutu inguruko saioak eginaz, gauean beste saioa bat hotel bateko saloi batean». Hortik aurrera erritmoa jeitsi bazuten ere, erakustaldi ugari egin zituzten astelehen goizerrate. Whiskey-aren sorterrian egonik, destileri batetan ere dantzatu zuten.

St Patrick's day

Larunbatean ospatu zuten Irlandarren egun kuttuna. Alurrekoak ere Midletoneko desfilean parte hartu zuten, gaiteroen atzetik eta herriko taldeekin batera. Bertako ohiturarekin

bat eginaz, elizatik plazarako ibilbidea dantzariz jantzirik burutu zuten. Arratsaldean beste desfilea zuten, denboraz libre triki poteoan pasa zuten pubetik pubera. Gauean berri, «kultur trukea» landu omen zuten.

Balorazioak egiteko garaian, «giro ona» azpimarratzen zuten, baita bertakoengan pizten zuten interesa eta mutil dantzariaren arrakasta ere; «hauek dantza egiten zutenean, batez ere fandangoa, denak oihuka eta aztoraturik jartzen ziren».

Irisarrira asteburuan

Motxilak hustutzeko denborarik gabe, Behe Nafarroa egingo dute asteburu honetan bidaiari Alurr dantza taldeko partaideek.

LIZARTZA ▶ HIRIGINTZA

Alondegia eraikuntza historikoa pribatizatzeaz

Alondegia Bizirikoko kideek eraikuntzaren «proiektu zehaztu bat» daukate esku artean



Erdigunean dagoen Alondegiko eraikuntza historikoa. MADDI SOROA

A. IMAZ

Alondegia Bizirik Plataformakoek herriko eraikin historiko honen inguruko mugimendu berriak salatu nahi izan dituzte, Lizartzan etxez-ete banatu duten idatzi baten bidez.

Plataformako kideek jakinarazi dutenez, «Udalak Alondegiko osoa saldu eta pribatizatzeako asmoekin jarraitzen dute. Hilaren 6ean guk egin genuen bileran, Axurdarioko kide batek idazkariaren eskutik jasotako proiektu bat ekarri zuen gugana. Joseba Egibar (EAJ) alkateak proiektuaren eraketa, luze xamar joango zela esan arren, gure bilerara aurkeztu zena, erabat zehaztua zegoen». Honen aurrean, plataformakoak Udala idazkariarengana jo zuten, «argibide bila eta bere erantzuna oraindik proiektua egiteko dagoela eta orain asteko asmoa dutela» izan omen zen.

Informazio hau eskuan dutela, Alondegia Bizirik Plataformakoei une egokia iruditzen zaie 2005. urtean Udale-

an aurkeztutako ideiak berriro ere gogoratzeko. «Behere solairuan antzoki moduko saila jartzea» eskatzen dute. «Eskematoki eta guzti joango litzateke, zoru osoa horretarako hartuz eta goiko solairuetarako sarrera aldatuz, kanpotik jarriz, hain zuzen ere». Honegat gainera, «eskatza kale aldetik irekia» izatea nahi dute. «Udal teknikariek begiztatuta dituzten lokal komertzialak, jendearen erosotasunerako eta merkatuko logikak, Lizar supermerkatuaren ondoan» joatea ere eskatzen diote Udalari.

«Ostiralean Alondegian»

19:30ean Alondegiko bertara azaltzeko deialdia luzatu diete plataformakoek herritarrei, bertan antolatuko diren ekitaldietan parte hartzeko. Lehenik antzerkia ikusteko aukera izango da; *Beteluko balneario*ko *mirakulua* antzeztuko du Txotx antzerki taldeak. Ondoren, talo jatea eta animazioa egongo da.



Higiezin Agentzia

Pablo Gorosabel 40
1. solairua • 7. bulegoa
20400 TOLOSA
Tel./faxa: 943 65 55 87
Sakelakoa: 669 368 994

Amasa. 124m²ko bi etxebizitza. Egoera oso onean. Altzari eta guzti dituela.

Anoeta. Harritzoko baserrian etxebizitza. Berritzeko, 90m²koa.

Belauntza. Pabillioia alokairuan, bulegoak, komunak eta abar.

Berastegi. 2 solairuko pabillioia alokairuan, 700 m² solairuko.

Berrobi. Laugarren solairuan etxebizitza salgai.

Légorreta. Baserria salgai, lurrekin. Informazio pertsonala.

Légorreta. Landa lurren 3 hektarea.

Lizartza. Etxe bifamiliar batentzako lurra eta abeltzaintzarako ustiatetarekin.

Lizartza. 900m²ko bi modulo salgai.

Irura. San Miguel plaza. Atikoa. 76 m² erabilgarri.

Irura. Etxezarreta; 3 logela, komuna, bainugela, altzariekin, garajea eta trasteleku duen etxebizitza.

Tolosa. San Esteban auzunean, kanpora begirako 100 m²ko etxebizitza salgai. Berritu beharrekoa.

Tolosa. San Esteban auzunean, bi

gelako etxebizitza, igogailuarekin eta erabat berritua.

Tolosa. Ugarran Goenan, baserria berritu beharrekoa. 3 solairuko.

Tolosa. San Frantzisko, 75 m²ko atikoa salgai. Eraberritzeko.

Tolosa. Pablo Gorosabel. 50 m²ko bulegoak alokairuan edo salmentan.

Tolosa. San Frantziskon gela bakarreko etxebizitza. Garajea aukeran.

Tolosa. Agintari kalea. Bi logelako etxebizitza. Egongela, sukalde eta komunarekin.

Tolosa. 89 m²ko etxebizitza salgai Zabalarretan. Hiru logela, garajea eta trastelekuarekin.

Tolosa. Santa Klaran, 90 m²ko etxebizitza, atzealdean lur sailarekin.

Tolosa. Zumalakarregi kalean 160 m²ko etxebizitza. Egoera oso onean.

Tolosa. Zumalakarregi kalean, lehenengo solairuan 105 m²ko etxebizitza.

Tolosa. Maituna zaharra. Azken garaje itxiak, 30m²tt aurrera. Karga jasogailuekin sartzeko. Marboan hasiko dira lanak.

ALEGIA ▶ AHT

Informazio kanpaina proiektua ezagutzeko

Hainbat herriko taldek babestuta hitzaldiak izango dira

ERREDAKZIOA

AHTri buruzko informazio kanpaina Alegian martxan da eta etzi bukatuko da. Eskualdeari zuzenean egokitu zaien proiektuaz gehiago jakiteko jardunaldi interesgarriak dira.

259 alegiarrek horrela eskatuta eta talde askoren sostenguekin, AHTren inguruan informazio eta galdeketa prozesua ireki zen: «zuzen zuzenean gugan eragina duen gaia da». «Ezjakintasuna» da nagusi ordea herrian, eta «makro-proiektu honen nondik norakoak eta xehetasunak hedatzeko asmoz», egitarau zehatz bat prestatu dute, aurkezpenean azaldu zuten bezala.

Kultur Etxean dagoen erakusketa finakoak balioko du herritarren ekarpenak jartzeko: iritziak, albisteak... Dena baliagarria izango da. Kalean ere panelak daude: herriko plazan eta eskolako eremuan. Hauek, AHTri buruzko zenbait datu interesgarri gain, argazkien eta planoen bidez, Alegian nondik pasako litzatekeen azaltzen da.

Informazio orriak ere etxee-



Kultur Etxean jarritako informazio gune bat. HITZA

tan banatuko dituzte, hau da, galdeketa nola gauzatu den, sortzen diren berriak eta abar.

Hitzaldiak eta proiektzioak hasi dira dagoeneko. Lehena, hilaren 23an egiteko asmoa zuten, Xabier Ezeizabarrenarekin: *AHT bai* gaia jorratu behar zuten, baina «azken unean ez zen bertaratu». Gaur, *AHT ez* gaia jorratuko dute Iñaki Antiguedadek (EHUko Hidrologia katedradun irakaslea) eta Mikel Alvarezek (*AHT Gelditu! elkarlaneko* kidea). Bihar, berriz, bideo proiektioa izango da.

Bukatzeko, etzi, 20:00etan ere, eztabaida bat antolatuko dute: *AHT bai/ez*, hain zuzen. Hizlariak Urdaxpal Alberdi

EGITARAU ▶

GAUR, MARTXOAK 28
20:00. *AHT ez* hitzaldia Iñaki Antiguedadekin eta Mikel Alvarezekin.

BIHAR, MARTXOAK 29
20:00. Bideo proiektioa.

ETZI, MARTXOAK 30
20:00. *AHT* gaiari heldurik, eztabaida.

(AHTren aurkako asanbladako kidea) eta Roberto Bermejo (Ekonomian doktorea, EHUko irakaslea eta garraioan aditua) izango dira.

TOLOSA ▶ GIZARTEA



Bilgune Feministaren salaketa

Erredakzioa ▶ Tolosaldeko Bilgune Feministak «lehenengo ostira-lean Bilbon senarrak labankadaz erail zuten 74 urteko emakumearen heriotza salatzen» Tolosako Triangulon elkartu egin ziren herenegun iluntzean. Tolosan bezala Euskal Herriko beste hainbat herritan ere egin zituzten kontzentrazioak. Kasu honetan erabili zuten leloa *Emakumeon aurkako indarkeriari aurre hartu* izan zen. IMANOL GARCIA

ABALTZISKETA ▶ AGENDA 21

Bigarren batzarrean, aukerak eginda

Joandako 18 herritarrek jorratu beharreko gai guztiak landu zituzten

ERREDAKZIOA

Abaltzisketan ekintza planari buruzko 2. herri batzarra egin zuten, Abaltzisketako Udalak deituta, Agenda 21 prozesua dela eta. Honetan, herritarren artean lehenetsua duten ekintzak aukeratu zituzten.

Batzarrea 18 herritar joan ziren. Agenda 21 prozesuaren nondik norakoak azaldu eta, herritarrek 3 taldetan banatu ziren. Bakoitzean ekintza zehatzak landu zituzten: lehenengo taldean, etxebizitza, zerbitzuak, hezkuntza zerbitzuak eta gizarte zerbitzuak. Bigarren taldean, kirol eta kultur zerbitzuak, hizkuntza gaiak, errepide sarea, garraio publikoa, eta energia.

Hirugarrenean hondakinak,

udalerriko ekonomia, natur baliabideak, jarduera ekonomikoaren eragina, hirigintza, udal kudeaketa, Udala eta herritarren arteko komunikazioa.

Bukaeran talde bakoitzeko

dinamizatzaileak, lehentasunen irakurketa egin zuten. Bileran egindako lanarekin, etorkizunerako plangintza zehaztu nahi izan da: «horregatik garrantzitsua da parte-hartzea».

GOIERRI LANBIDE ESKOLA

Goierrri Lanbide Eskola

BATXILERGOA

— ATE IREKIEN —
JARDUNALDIA

Bihar Osteguna
Martxoak 29 - 18:00tan

TXOTX

Arratzain
Arratzain zahar baserria info@agroturismoarratzain.com
Tel.: 943 366 663 **Usurbil**

Oialume Zar
Mikel Arozamena bidea, 16 (autobus geltokitik gertu)
Tel.: 943 552 938 - 943 332 127 **Astigarraga**

Gartziategi
Gartziategi baserria
Tel.: 943 469 674 **Astigarraga**

Iparragirre
Osiñaga auzoa
Tel.: 943 550 328 **Hernani**

Urbitate
Ergoiena auzoa
Tel.: 943 180 119 **Ataun**

Gurutzeta
Oialume bidea, 63 (sarrera Ergobia auzotik)
Tel.: 943 552 242 **Astigarraga**

Akelenea
Oialume bidea 57
Tel.: 943 333 333 **Astigarraga**

Lizeaga
Gartziategi baserria, Martutene pas. 139
Tel.: 943 468 290 **Astigarraga**

Elutxeta
Oztaran auzoa 34, Elutxeta baserria
Tel.: 943 556 981 - 943 333 337 **Urnieta**

Rezola
Santio Zeharra
Tel.: 943 552 720 - 608 143 332 **Astigarraga**

Larre Gain
Larre-Gain baserria, Erefoizu auzoa
Tel.: 943 555 846 - 616 287 867 **Hernani**

LEIRE OLABERRIA ▶ PISTAKO TXIRRINDULARIA

«Bizikleta lana ez ezik, zaletasuna ere bada; horra nire sekretua»

Euskal Herriko pistako txirrindularitzaren ikurra da. Bikain ari den belaunaldi bateko kirolari onena. Etxean hasi zen, Espainian gero, eta Munduko Kopan azkena. Munduko Txapelketa du zain orain

A. URBISTONDO (Berria)

Leire Olaberria (Ikaztegieta, 1976) kirolari berezia da, aparteko lehengaiaren jabe. Elitean jardun zuen atletismoan, baina goi mailako lehiaketaren exijentziarekin pot egin, eta alde batera utzi zuen kirola. Urte batzuk geroago, pistako txirrindularitzan hasi zen, «probatze aldera». Orain 30 urte ditu, eta lorpen zerrenda ikusgarria, baina bere kirol ibilbideko une gozoena iristear dagoela dio. Pekingo Olinpiar Jokoak ditu buruan, 2008an. Lehenago, Mallorcako Munduko txapelketan parte hartuko du —bihar hasiko da—. Bi egun bakarrik eman ditu Donostian azken hilabetea.

Zer moduz daramazu etxetik kanpo hainbeste denbora pasatzeko egoera hori?

Beno, denborarekin ohitu egiten zara, eta etxera etorzen zarenean, gusturago egon etxean, eta etxekoekin.

Donostian bizi zara, baina sarri joaten zara jaioterriara, Ikaztegieta.

Bai, asko maite dut Ikaztegieta egotea. Aztoratuta sentitzen naizenean eta hara joaten naiz, lasaitasun bila. Familiarekin, iloba txikiarekin egon... Donostiako bizitza ere gustukoa dut; oso egokia da entrenatzeko eta, belodromoan bertan dugulako.

Kirolari ezaguna al zara jendearen begietara?

Ez, ez naiz ezaguna. Pista ez da oso diziplina ezaguna, eta pozten naiz oraingoz anonimotasun hori mantentzeko aukera daukadalako.

Eta komunikabideen arreta-



ANDONI CANELLADA/ARGAZKI PRESS

gune izatea nekeza egiten al da?

Ez, ez da nekatzeko modukoa. **Aztera begiratu eta zer ikusten du Leire Olaberriak? Zure jarduna ikusgarria da oso.**

Tira, ez dut horretan sobera pentsatzen. Hasi nintzenean ez neukan inolako asmorik lortu dudana lortzeko. Burutik pasa ere ez, benetan diot. Hasi nintzen, baina garai hartan emakumezkoen txirrindularitza ez zen oso serio hartzen, ez zelako goi mailan ari zitekeen kirolaririk ikusten. Josetxo Sansineña Sansi Gipuzkoako federazioko kidearekin ordu asko pasatu nituen hasieran. Gogorra zen izaeraz, eta pistan hasi nintzenean, «beste neska bat» bota zuen nigatik, itsusi samar. Bere garaian ondo hartu ez nituen hitzak esan zizkidan: «Itsun herrian begi-okarren nagusi izan zintezke». Hura akuilua izan zen niretzat. Pixkanaka hobetzen hasi nintzen, eta Euskadiko eta Espainiako txapelketak korritu nituen. Orduan ekin nion serioago.

Eta orduz geroztik, 18 domina Espainiako Txapelketetan, beste bi Munduko Kopan, Munduko Txapelketa bihar hasita Mallorcan...

Beno, zorte onekoa naizela uste dut. Txirrindularitza oso kirol gogorra da. Normalean ematen dizun baino gehiago kentzen dizu, baina nire kasua kontrakoa da. Hiru urte eta erdian lortu dut nahiko gora iristea, eta pistako txirrindularien entrenamendu exijentzia ez da errepideko txirrindulariek dutena bezalakoa. Horretaz gain, ilusioz gainezka aritu izan naiz beti, eta lana egiteko konpro-

HILBERRIAK - URTEURRENAK - ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZAK GIPUZKOAN 120.000 IRAKURLE

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen dira
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info
Tel.: 943 65 56 95



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

misoa hartzeko zailtasunik ez dut eduki. Oso buru-gogorra naiz: erronka bat jarri eta lortu arte ez dut etsitzen. Hori kaltegarria ere izan da batzuetan, baina urteekin nire gorputzari entzuten ere ikasi dut, eta orain sasoi onean nagoela esaten dit.

Zein da zure arrakastaren gakoak?

Nire lanbidea nire zaletasuna ere badela. Horrek asko laguntzen dit lanean jarraitzeko. Bestelako ogibideak ezagutu ditut, eta oraintxe ez nuke aldatuko. Badakit egunero zortzi orduz lan bera egitea zein gogorra den, eta ez dut hori bizi nahi berriro, oraingoz. Nik hiruzpatalau orduko lana egiten dut egunero. Bizikleta hartu eta gorpuzta zigortu. Orain arte egin dudana lanik onena txirrindulari izatea da.

Gazteagoa zinenen elitearen gozoa ezagutu zenuen.

Bai. Txikitatik mutikoeekin jolas-tu naiz. Oso kirolzalea nintzen. Barruan oso sartuta neukan zerbaitekin ziklora egitea. Bizikleta gainean batzuetan, atletismo pistan ondoren, erraketa bat ematen bazidaten tenisean... zertan gutxienekoa zen. Berazubiko taldearekin hasi nintzen, Tolosan. Gaztea nintzenen Dina Bilbao ezagutu nuen, eta oso pertsona berezia izan niretzat. Hari esker, duatloia ezagutu nuen. Bizikleta bat utzi zidan lehen aldiz, eta Euskadiko Duatloi Txapelketa korritu. Han Espainiako korritzeko gutxieneko marka lortu nuen. Bi diziplinetako bat aukeratu behar izan nuen gero, eta atletismoa aukeratu nuen. Lehen urtean, Espainiako txapelketa irabazi nuen 100 metrokoan; bigarrenengoan, Espainiako marka ondu... Bizpahiru urte on-onak izan ziren, baina gero behera egin nuen.

Zer gertatu zen?

Aurreikuspen arrakastatsua egiten zen nik lor nezakeenari buruz, eta ez nuen zama hori eramaten asmatu. Gainditu egin ninduen egoera hark. Hasierako markak oso onak izan ziren, baina ondorengo bilakera ez hain ona. Nekatu egin nintzen buruz-eta. Lesioak ere izan nituen, elikadurarekin arazo batzuk...

Baina zu jabetzen al zinen talentu handia zenukela?

Nik banekien nire adinekoen artean azkarrena nintzela, diferentzia handia zelako. Dohain berezi batzuk nituela jakin nuen gazte nintzela, baina dohain horiei etekin osoa ateratzeko ezinak ito egin ninduen. Denbora luzea pasatzen nuen buru janean arrazoiak bilatzen.

Leheritu egin zinen.

Bai, turismoa ikasten hasi nintzen Donostian, eta alde batera utzi nuen orduan goi mailako atletismoa. Kirolarekin harreman zuzena eduki dut beti, halere. Izotz hockey pistako harreman hasi nintzen lanean, spinning ikastaroak ematen... Halako batean, Oscar Ezker agertu zen, entrenatzaile eta laguna, eta hark esan zidan nik ezin nuela utzi goi mailako lehiaketa utzi nuen moduan. Nik galduta neukan fedea zeukan berak nigan. Hark esan zidan ea pistan hasiko nintzen, eta mutil-laguna ere bultzaka hasi zen... Entrenatzen hasteko esan zidaten, ea zer moduz moldatzen nintzen. 2003ko abuztua izango zen. Pistako bizikleta bat utzi zidaten, eta han hasi nintzen.

TXIRRINDULARITZA

«Hiruzpatalau ordukoa da nire lan jardunaldia; orain arte eduki dudana lanik onena da txirrindularitza»

Ufa, urduri, kristoren tentsioarekin... Belodromoan itzuli batzuk eman ondoren, ordea, berehala jabetu nintzen hura nire bizitzako erronka izango zela, batez ere hasieran sentitua nuen beldurraengatik, arriskuarengatik. «Ezin dut amore eman», esaten nion neure buruari, «aurre egin behar diot».

Eta, zer moduz?

Ufa, urduri, kristoren tentsioarekin... Belodromoan itzuli batzuk eman ondoren, ordea, berehala jabetu nintzen hura nire bizitzako erronka izango zela, batez ere hasieran sentitua nuen beldurraengatik, arriskuarengatik. «Ezin dut amore eman», esaten nion neure buruari, «aurre egin behar diot».

Bistan da egin zeniola.

Bai, bai. Gogoan dut ni pistan ibiltzen hasi aurreko urtean Gemma Pascual pistarda Espainiako marka egiten ikusi nuela harmailetatik, eta urte bateko epean berarekin lehiatzen nengoela abiadurako proban. Horrek grina piztu zidan berriz, eta hortik etorri da beste guztia.

Gemma Pascual lagun handia duzu.

Gemma funtsezkoa izan da nire bilakaera honetan. Lagunak gara; hark erakutsi dizkit pistako sekretu denak. Orain haren mailan nabil, eta, ez pentsa, hura gainditzeak halako egonezina sortzen dit.

Zuk ere jarriko zenuen zerbaitekin, ezta?

Beno, esan bezala dohain fisiko onekoa naiz. Hori gogoan, pistako sekretuak ikastea izan da bilakaera onean gehien lagundu nauena. Aurkariaren jarduna aztertu, indarrak gordetzen ikasi... lasterketa aztertze gaitasuna eduki, azken finean. Eskarmentuak ematen du hori.

Eta ba al duzu eskarmentu nahikoa munduko txapelketan dominaren bat lortzeko?

Justu samar iritsiko naizela esango nuke. Beste urtebeteko

ARRAKASTA

«Indar fisikoa, teknika ona eta taktika egokia: hiru ezaugarri horiek batzea da arrakastaren gakoa»



PISTA

«Elitea ez dago urrun. Hiru urte daramatzat pistan, eta aurkari askok hamar. Pekinen lehiatzea da xedea»



HITZA

eskarmentua behar dut Munduko Kopan, onenen pare aritzeko.

Zein diziplinatan parte hartuko duzu?

Jazarpena buruz buru eta scratcha. Jazarpenean 3.45 denbora inguruan ibil naiteke (3.47.795 marka du orain), eta hori 10. edo 11. postua da. Denboraren arabera da postua, eta zaila da ezustekoak egotea. Scratcha, aldiz, oso proba irekia da. Edozer gauza gerta daiteke. Iraupeneko proba da, baina abiadurak garrantzi handia dauka. 40 itzuli ematen dira, eta horiek azkarren ematen dituen da txapeladuna. Munduko txapelketan ordezkarri bakarra dauka herrialde bakoitzak, eta horrek nire aukera handitzen du. Munduko Kopan emaitzen arabera ordezkarri gehiago edo

gutxiago edukitzen dira, eta jakina, bi ordezkarri dituen garaitezko ezinezkoa da. Akordioak ere egon daitezke herri ezberdinetako ordezkarrien artean.

Pentsatzekoa da erortzeari diozuela beldur handiena.

Bai, hala da. Erortzea da okerrera, baina, zoritxarrez, sarri gertatzen da. Gainera, batzuetan apropos eragiten da, eta hori kolpea bera baino mingarriagoa da.

Zer da erabakigarriagoa, indar fisikoa, teknika edo taktika?

Hirurak batutzea. Fisikoki indartsu ez bazaude jai duzu, baina teknikoki ona bazara, indar gutxiago xahutzen duzu, eta taktikoki ona bazara, ba, antzera.

Eustrak-Cespa taldea sortu

LEIRE OLABERRIA ▶

ZENBAIT DATU

Jaioterria. Ikaztegieta. Donostian bizi da.
Adina. 30 urte.
Taldea. Eustrak-Cespa.
Kirol ibilbidea. Atletismoa egin zuen gaztetan. Espainiako Txapeladuna izan zen 100 metroko proban kadeteetan. Egun, berea da Gipuzkoako marka onena (11.86). 60 metroko finala ere korritu zuen Espainiako Txapelketan. 2003ko abuztuan eman zituen

lehen itzuliak pistako bizikleta batean. 18 domina irabazi ditu Espainiako Txapelketetan (urrezkoak 11), eta zilarrezko bat eta brontzezko bana Munduko Kopako bi probatan: Sydney 2006n (Australia), puntuazioko proban, eta Los Angelesen aurten (AEB), scratch diziplinan. UCiCo sailkapenean 4. dago puntuazioan, eta 15.ean scratchean.

berri da. Nazioartean lehiatzeko aukera eman diez horrek. Garrantzitsua da.

Oso. Lehen Espainiako selekzioarekin bakarrik korritzen genuen atzerrian, orain babes handiagoa dugu.

Posible al da pistako eliteko kirolari izanda soldata duina irabaztea?

Beno, horrek ez nau sobera arduratzen. Egia da, bestalde, egun horri esker bizi naizela. Eustrakekin gizarte segurantzza badut, Jaurilaritzaren diru laguntza ere bai, Espainiako txirrindularitza federazioaren beka...

Nola ikusten duzu etorkizun hurbila?

Elitea ez dago urrun. Olinpiar txapeladuna izatea ez da utopia bat, lor daiteke, eta 30 urterekin badut hobetzeko tartea oraindik. Hiru urteko eskarmentua daukat. Nirekin batera aritzen diren askok hamar urte daramatzate pistako txirrindularitzan.

Eta atletismoan gertatu bezala, ez al duzu beldurrik presioarekin itotzeko?

Ez dut uste. Urteen joan-etorrian neurria hartzen ikasten da, eta uneoro gozatzen baduzu, erantzukizuna ez da hainbestekoa.

Pekinen bukatzen al da zure bidea?

Oraingo ez dut harago begiratu nahi. Pekin, eta gero gerokoak.

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Alegia. Kultur Etxean, 20:00etan, *AHT* ez lelopean, hitzaldia, Iñaki Antiguiedad (EHUko Hidrologia katedradun irakaslea) eta Mikel Alvarezek (AHT Gelditu! elkarlaneko kidea).
Tolosa. Nazio Eztatidaguneak eta Hik Hasi Hezkuntza aldizkariak besteak beste sinatutako hezkuntza akordioaren berri, 18:30ean, Kultur Etxean.
Tolosa. Renfex Donostia-Tolosa zuzeneko trenaren Tolosako apeaderoan geditzeari utzi ziolako sortutako taldeak bilera egingo du, 20:15ean, Kultur Etxean.
Tolosa. Ezker abertzaleak deituta, batzarra Kultur Etxean, 19:30ean.
Zizurkil. Apirilaren 10etik 13ra *Aste Santuan jolastuz* programa izango da 1995-2003 urteetan jaiotako haurrentzat. Izen-ematea, Aurrera plazako udal bulegoetan, 5 eurotan.
Alegia. 21:30ean, Gaztetxean film emanaldia: *Codigo 46*.
Aduna. Asvinenea kultur elkarteak Poltsikoko antzerki lehiaketa antolatatu du. Lanak apirilaren 6rako aurkeztu behar dira Asvinenean (info@asvinenea.com, Zubixiki 15, 20.150) 30 euro ordainduz.
Ibarra. Udalak eta Uzturpe ikastolak gurasoentzako tailerrak antolatatu ditu, arazoei nola aurre egin aztertzeko. Izen-ematea, udaldebeko gizarte zerbitzuetan.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Lekunberri. Mendia, B. Aralar, 25. 112.
Tolosa. Tolosa. M.I. Kale Nagusia, 7. 943 67 06 48.

IRRATIA

Txolarre irrátia (107.5, 101.2 FM)
 11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, Hitzaren errepassoa, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...
 18:00-20:00. *Tolosaldeko ahotsa* (erreplikapena).
 20:00-21:00. *Irauli uhinak*.
 21:00-23:00. *Bide okerretik*.

▶ HITZak ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Zaborrarekin, zer?

TOLOSA ▶ Ikastetxeetako 50 ikasle inguru bildu ziren atzo Kultur Etxean hondakinen inguruan Tolosako Udalarari emango dioten txostena idazteko



Kultur Etxean bildu ziren zenbait ikasle, atzo goizean. N. GARZIA

NAIARA GARZIA

Tolosako 50 neska-mutil inguru hondakinei buruz hitz egiteko bildu ziren atzo goizean Tolosako Kultur Etxean. Hain zuzen ere, Samaniego-Orixe, Hirukide eta Laskorain ikastetxeetako zenbait ordezkari ikasturtean zehar landutako gaiaren inguruan mintzatzeko bildu ziren.

Kultur Etxeko hainbat gelatan bildu ziren Tolosako ikasleak, eta ikastetxe bakoitzean landutakoa besteen aurrean aurkeztea zuten helburu, ezta-

baida bultzatu eta azken dokumentu bat egiteko. Dokumentu hau Tolosako Udaltzari aurkeztuko zaio.

Ikastetxe bakoitzean zikloka landu dute hondakinen gaia ikasturtean zehar: LH 2. zikloa. LH 3. zikloa. DBH eta Batxilergoa. Laskorain Ikastolako irakasle den Ana Erbitiren ustez, hau da proiektu honen helburua: «hondakinak murrizten saiatzea, birziklatzeko ohitura bultzatzea eta kontzientzia sortzea, ez ikasleengan soilik, baita guraso eta herriarengan ere».

Honela, atzokoa ikasturte osoan zehar egindako lanaren barruan beste urrats bat izan zen. «LH 3. zikloan esaterako, hondakina sailkatzearen inguruko ohiturak aztertu ditugu. Galdekizunak etxean banatu ondoren gurasoen erantzunak gela bateratu eta ondorioak atera ditugu», dio Erbitik. «Honetaz gain, kaleko garbitasunaren egoera aztertu dugu, eta honetarako ikasgela bakoitzak zonalde bat hartu du, hau hobeto aztertzeko». Tolosako garbitasunaren egoera aztertu ondoren, ondorioak atera dituzte,

eta azkeneko urratsa konpromisoarena izan da. «Egoera aztertu ondoren ikasleek zenbait konpromiso ezarri dituzte».

DBH eta Batxilergoan, berriz, etxean sortutako zakarra eraman eta hau sailkatu egin dute. Baina zakarra ikastetxera eramatea ez da batera erraza izan. «Azkenek neronek eraman behar izan nuen, ikasleak lotsatu egiten baitziren», dio Luixi Arregik, Laskoraingo DBHko irakaslea. «Kontsumitu bai, baina hondakinekin ez dugu ezer jakin nahi», dio Ana Erbitik.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
 Neia Iturriz Galarza (Amezketeta). Gaur 3 urte. Zorionak etxekoan partetik.



URTE ASKOAN
 Juan Tolosa Tolosa (Ugarte Amezketeta). Gaur 88 urte. Ondo pasa familiaren partetik.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

▶ HITZAren egoitza Tolosan Araba etorbidea, 5 behea

▶ HITZAren egoitza Leitzan Udaldebeko bulegoa

hitza
 agurren tartea

Urtebetetzak, urrezko etzeiak, ezkontzak, jaioberriak...